

Izenordainak

Izenordainak izenen ordeaz erabiltzen diren hitzak dira, eta deklinatu egiten dira deklinabide kasuak adierazteko: nor, nork, nori, noren, norekin, norentzat...

PERTSONA	NOR	NORK	NORI	NOREN	NOREKIN	NORENTZAT
1. singularra	ni	nik	niri	nire	nirekin	niretzat
2. singularra	zu	zuk	zuri	zure	zurekin	zuretzat
3. singularra	hura	hark	hari	haren	harekin	harentzat
1. plurala	gu	guk	guri	gure	gurekin	guretzat
2. plurala	zuek	zuek	zuei	zuen	zuekin	zuentzat
3. plurala	haiek	haiek	haiei	haien	haiekin	haientzat

Jarduerak

1. Aurkitu esaldi hauetako pertsona-izenordainak. Ondoren, sailkatu deklinabide-kasuaren arabera.

- Zuek ere joan beharko zenukete haiekin gela garbitu eta apaintzera.

Izenordaina	Kasua

- Niri ez galdetu zer egin dezakezun gu etorri arte.

Izenordaina	Kasua

- Mireiak dena kontatzen dizu zuri, baina guri ez digu ezer esaten.

Izenordaina	Kasua

- Lehendabizi prestatu gosaria zuretzat eta arrebarentzat.

Izenordaina	Kasua

- Zuri oparitzen badizugu, hark ere nahiko du txakurra edo katua.

Izenordaina	Kasua

2. Idatzi berriro esaldi hauek, pertsona-izenordain egokiak idatziz nabarmendutako hitzen ordeez.

- Bihartik aurrera talde berria osatuko dut **Aizpea eta Zuriñerekin**. _____
- **Martinek eta nik** _____ badakigu zer gertatuko den telebista-saio horretan.
- **Mirenentzat** _____ ez dago egun txarrik; beti dago barrezka eta saltoka.
- Uda honetan, **Mirari eta zu** _____ oporretan joango zarete aitona-amonen herrira.

3. Osatu esaldietako hutsuneak pertsona-izenordain egokiekin.

haiekin – zuentzat – guri – zurea – nik

- Onintzak, Maitek, Peruk eta _____ bederatzietako trena hartuko dugu.
- Argazki polit bat ekarri dut _____ oporretatik.
- Mirari _____ al da atarian dagoen mendiko bizikleta berria?
- Saskibaloiko entrenatzailea _____ bildu zen partida prestatzeko.
- _____ ez galdetu museora joateko bidea, ez gara hemengoak eta.

4. Osatu pertsona-izenordainak deklinabide-atzizki egokiekin.



- Emango didazu ni _____ ere madari bat?
- Liburu hori Ziortzak ekarri du liburutegitik zu _____.
- Gu _____ badakigu noiz etortzen den gozokien furgoneta.
- Zu _____ txakurra parkean ikusi dugu beste txakur batzuekin jolasten.
- Bihar Paulekin eta zu _____ joango naiz ni ere igerilekura.